



Gogo bizia

1 Begiratu Emoziotegiko 70-71. orrialdeetako irudiari, eta erantzun galderei.

● Zertan ari dira, itxuraz, pertsonaiak?

● Uste duzu pertsonaiak hori egiten gozaten ari direla? Zergatik?

2 Aukeratu lau hitz, eta erabil itzazu Emoziotegiko 70-71. orrialdeetako irudiko eszena deskribatzeko.

dantza egin kaiola hegan egin espetxea kometa
 hegaztiak haria askatasuna gozamena
 krimena hautsi urduritasuna

3 Zertan ari dira bi txori horiek? Zergatik uste duzu ari direla hori egiten?



4 Irakurri Emoziotegiko 70. orrialdeko testua, eta aukeratu, kasu bakoitzean, erantzun egokia.

- Zer sentitzen duzu **ahalguztidun** sentitzen zarenean?
 - Gauza guztietan energia handia dagoela sentitzen duzu.
 - Edozer gauza egin dezakezula sentitzen duzu.
 - Zenbait gauza zuk baino ezin dituzula egin sentitzen duzu.
- Zer eragiten du **gogo biziak**?
 - Bakeaz gozatzea.
 - Kantatzea eta dantzatzea.
 - Abian jartzea eta gauzak egitea.
- Zer sentitzen duzu gogo bizia duzunean?
 - Energia gehiago duzula.
 - Energia gutxiago duzula.
 - Energia galtzen duzula dantza egiteko gogoia duzulako.

5 Begiratu ereduari. Gero, ordenatu zatiak hitz berriak lortzeko, eta idatzi haien esanahia.

begi + luze = begiluze

Begiluze hitzak dena ihusi nahi duena esan nahi du.

- Zer hitz erabil genezake "dena jakin nahi duena" adierazteko?

sudur + luze =

- Eta norbait lapurra dela adierazteko?

esku + luze =

6

Emoziotegiko 70. orrialdeko testuan esaten da gogo bizia zerbait egitera **bultzatzen** gaituen indarra dela. Zer esan nahi du horrek? Markatu egokia iruditzen zaizun esanahia.

- Ekintza bat ezinezko egitea. Adibidez: *Ekaitzak partida jokatzera bultzatu zuen.*
- Jarduera bat sustatzea. Adibidez: *Haren aholkuek Medikuntza ikastera bultzatu ninduten.*
- Objektu bat ezkutatzea edo mozorrotzea, beste zerbaiten itxura har dezan. Adibidez: *Amak loreontzia margotuta bultzatu zuen sortu zitzaion pitzadura.*

● Orain, jarri aditz egokia gainerako adibideetan.

eragotzi → _____

dísimulatu → _____

● Idatzi esaldi bat aditz bakoitzarekin.

7

Osatu esaldiak.

Eguraldi onak... *bultzatzen*

nau.

Nota onak ateratzeak... *bultzatzen nau.*

● Azpimarratu "bultzatu" hitzaren sinonimoak.

sustatu estímulo eginarazi bultza egin isuri jokatu

8 Hausnartu, eta ordenatu jarduera hauek gutxien egin nahi duzuketik **(1)** gehien egin nahi duzunera **(6)**.

- Hodi eta egurrekin baltsa txiki bat egitea.
- Hondarrezko duna batean behera biraka jaitea.
- Elefante bat laztantzea.
- Olatu gainean ohol batekin ibiltzea.
- Elur-panpina bat egitea.
- Helikopteroan osteratxo bat egitea.

9 Pentsa ezazu lagun bat konbentzitu behar duzula aurreko ariketan **6** zenbakia jarri diozun jarduera zurekin egin dezan.

- Zerk pizten dizu gogo bizia jarduera horretan?

- Saia zaitetz zure lagunak ere gogo bizi hori senti dezan. Begiratu ereduari.

Nirekin etorri behar duzu elefanteak laztantzera. Zer uste duzu sentituko dugula? Inoiz egin ez duzun zerbait da!

10

Irakurri gogo biziari buruzko abesti hau, eta asmatu harentzako doinu bat eta dantza bat.

Nire bihotza entzuten dut

Erritmo berezian dabil taupaka.

Erritmo jolastian dabil taupaka.

Haizete baten gisan dabil taupaka.

Taupadak igaro dira nire... besoetara!

Taupadak igaro dira nire... zangoetara!

Taupadak igaro dira nire... behatzetara!

Gora, gora, gora.

Taupa, taupa, taupa.

Dar-dar, dar-dar, dar-dar.

Nire bihotza entzuten dut.



11

Orain, sortu gogo biziari buruzko zeure abestia.
